

**N**INBE neskatilla on-ona zan. Bere biotz zabala zerbait maitetu gurearen indarrez, taupa ta taupa, aldi aretan artega samar erabillen. Oldozkun asko buruan eta autu asko biotzian. Olan da be, bere biotzarentzat maitasun egokirik ez.

Udako illuntze eder baten, egun atako lanak amaituta gero, gure neskatilla ontzitxo bat artu ta iturrira juan zan. Ego aize epelak bazterrak eta inguruak berariz berotzen ebazan artian, auzo aretako lagun-taldetxuak be, ur ederrez asetuteko ustez, iturri-aldera beti lez alaikiro juan ziran. Eta antxe ur garden-ozkiroan eskuetakoa ontzitxoak sartuta ebezalarik, barriketa ugerian jarri ziran.

Onetan Basabil'go Illipon artzain-mutil errimia, artaldeaz basoan eguna igarota, illunabarrak etxerantza ekarren. Eta iturri ondoko landa orlegira eldu zanian, Ninbe neskatilliaz itz batzuk egin gurean geratu zan. Orretarako, beste guztiak lez, landa aretako jearleku zabal baten egokiro jearri ziran. Eta oi dan lez, itzak itz eta autuak autu, egunaren argia illuntzera yoian.

Gau aretan, eleizañari azuta-edo, "Agurmaritakoak" berandutxuago ots egin eben. Eta gure gazte zintzoak, oitura onaren indarrez kanpai-otsera zutunduta, Zeruko Erregin altsua eraspenez maitekiro agurtu eben; eta geiagoko barik Andra Mariaren babesian ziralarik bakotxa bere bidietatik euren etxietarantza abiau ziran.

Ninbe etxerantzakoan oldozkun askogaz juan zan. Mutillaren itz gozo ta autuak atsegin izan jakozan, eta ori zala-ta, beraganako maitasuna oarkabez sortzera yoakon. Bere barruan nabaritzen eban abots miragarri bat zala-ta baña, itunta-



sunez jarri zan. Ezer ez eban ulertzen...

Illipon ostera poz-pozik juan zan, urrengo abesti zarra alaikiro abestuten:



Gaurkoa gaurko  
biarkoa biarko,  
Jaungoikoak emongo yok  
biar dan orduko.

Aurrerantzean euren arteko maitasuna egunerik egunera sendotuagaz yoian. Eta iturriko landan aiskidetu ziran gazte zintzoak maitasun okerrez orbandu bageko biotz zabal eta ederren jabeak ziran. Beraz, maitasun garbiz Jaunaren bide ederretatik gozaro-gozaro ebiltzan.

Igande arratsalde baten Ninbe, iñoz ez da, ibillaldi bat egiteko asmuz basorantza juan zan; eta ibilliak ibilli eginda, alako baten Sorobil'go iturritxora eldu zan. Eta bertan, ustegabeen, Illipon bere aitagaz batian artzaintzan ebillela aurkitu eban; eta bera bere artzain zintzoen ondoan iturriko landan jearri zan. Gazte biak maitasun-izketa luzian egozan eta artzain aguretxuak zantzo zoli bat jaurtin-da, antxiñako guda-abesti zar bat agin-artian abestuten ekin eban.

Alako baten neskatillak barriri be, bere barruan abots miragarri bat nabaritu eban, zirautzala: "Maitasun ori, garbia dan arren, zeuretzako ezta egokia. Nekerik eztautzu arinduko. Maitezalle andi bat or gorago dago zeure zain, besoak zabalik zeuri itxaroten"... Ori oartzian Ninbe'ren arpegia ezin geiagotan gorritu zan eta bere biotza estutasunez larrituta eten biarran aurkitu zan. Ez eban ezer ulertu...

Eguraldi eder-ederra egoan. Urretxindorra nagosi zala, txori-altra andi baten


*Maitasunik  
ederrenera*

abesti alaiak entzuten ziran. Ipar aize ozkuroak zugatzetako orri guri ta meiak "firifiri" igitutian, bideztiaren egarrria asuteko jausten zan ur garden-garbiak lamiña-eresi antzeko burrundara bakan bat egiten eban.

Orduan bai abestu leitekezala Arreseatar Emeterio'ren bertso eder onek:

Ara zer alai dagon  
gure sorterrria  
aritz, pago ta lizar  
bikañez jantzia!  
Alde bateko mugan  
itsas ugaria,  
arkaitza jo t'astintzen  
bere apar txuria;  
saroi oparotsuak,  
kerizpe geldia,  
baserritxoak nunai  
ta nunai bakia;  
mendi-gain bakotxean  
txabola txikia,  
artalde bat ondoren,  
gero... gurutzia!

Geroago izadia atsedentzen bailegoan, ixilune berezia izan zan. Eta ixilune mi-



ragarriaren altzuan mitxeleta zuri egozabal bat agertu zan. Eta mitxeleta eder arek Ninbe gozaro-gozaro bekokian jo eban. Eta gure neskatiak ego-zabaldun mitxeleta zuriaren atzetik gorantz eta gorantz egin eban Jesus Gurutzetuaren elizatzura eldu arte. Gurutzetuaren buharretik maitasun andiz Odola irradan jausten zan eta mitxeleta zuriak bere ego zabaletan Jaunaren Odol Deuna artuta neskatiaren ezpan bigunetan imini eban.

Une zoragarri orretan Ninbe'k, dardarka gozoa egifiaz, aldatze onuratsua egin eban. Egizko maitasunak osoro ezagutzeko zoriona izan eban. Mitxele-tiaren bitartez, maitasun gozo batetik beste maitasun gozo obiago ta ederragora egaz egin eban.

Gau aretan urretxindor miragarri baten abesti-otsera, neskatiak bere gelako leiua edegi ebanian, ikuskixunik alaiena izan eban. Ortze zabaliam illargia eder-eder agertzen zan; eta izar polit-dizdiratsuak zeruko geznari bizkorrak bailitzazan, ixil-ixilka izketa eztitsuan jardun ziran.

Azkenez urrin-urrietik etorran eresi eder-eder baten abots gozogo-zozoak Ninbe'ren belarrietan durundi zoragarria egin eban. Zeruko Birjiñak lurreko birjiñakaz batian euren Egilliarri abestuten eutsoen Ereserki ederraren durundia...

Jesus, Birjiñen koroia,  
Neskatx bakarrak ernea,  
Ama garbiak egifia,  
entzun zureen eskea.

Lili artean zabilta  
gazte garbiz esitua,  
ezkongai eder dirdaitsu,  
emaztegaien saria.

Norana! zoazen, ara  
Zure atzetik kantetan  
doaz gazte garbi oiek,  
betiko goratzarretan.

(Orize)

Mañariko ERROSE